



GOURMETS 2019

Madril

Informazio gehiago:

Jon Zabaleta

943 00 02 99

jzabaleta@camaragipuzkoa.com

Data: 2019ko apirila 8tik 11ra arte

Tokia: IFEMA azokagunea, Madril

Maiztasuna: Urtero

Norentzat: Banaketa kanaletako profesionalak
(inportatzaileak/esportatzaileak, banaketa
handia eta HO.RE.CA. kanaleko espezialistak).

Jatetxeetako jabeak eta kalitatezko

elikaduraren segmentuko espezialistak

Izen-emateko epea: 2018ko urriaren 8a

Azokaren webgunea: www.gourmets.net

DEIALDI HONETAN:

Azokaren izaera

Parte hartzeko baldintzak

Parte hartzeko eredia eta kostua


Eusko Jaurlaritzarekin parte hartzea

Eskainitako zerbitzuak

Izen emateko formularioa

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila, Elikaduraren Euskal Industria kanpoan sustatzen laguntzeko jardueren barruan, **GOURMETS SALOIA 2019** azokan Euskadiko elikagaien enpresen

baterako parte hartzea antolatu du HAZI Fundazioaren bitartez. GOURMETS SALOIA Kalitatezko Elikagaien eta Edarien Azoka, **Madrilgo IFEMA azokagunean**, ospatuko da **2019ko apirilaren 8tik 11ra arte**.



33
EDICIÓN
8,9,10,11
SALÓN
GOURMETS

GOURMETS 2019 azokaren izaera

Erakusketa eremua: 31.500 m²

2018ko erakusketariak: 1.603 erakusketariak

2018ko bisitariak: 90.158 profesionalak 63 herrialdekoak

Azokaren webgunean: www.gourmets.net

AZOKAREN IZAERA

Gourmets Saloia, Kalitateko Elikagaien eta Edarien Azoka gastronomiaren ekitaldi aintzidaria da, nazioarteko izaera eta guztiz profesionala du, kalitate handiko elikagai eta edariei eskainia.

Gama altuko nekazaritzako elikagaien fabrikatzaileen eta kontsumitzaileen topagunea da, eta Europan erreferentziazko azoka profesionala bihurtu da kalitate handiko gastronomiaren sektorean.

Euskadiren presentzia 300 metro koadroko esparru batean elkartu zen, eta bertan 24 enpresa sartu ziren.

EUSKADI BASQUE COUNTRY STANDA

Eusko Jaurlaritzak GOURMETS 2019 azokan **400 m²**-ko gunea izango du **4. pabiloian**, parte hartzeko interesa duten kalitatezko elikagaiak eta edariak ekoizten duten Euskadiko Elikadura Industriako enpresentzako.

Eusko Jaurlaritzako espazioa mugatuta izango da, stand-ak gehienezko enpresa kopurua hartuko du. Enpresa gehiagok erakusten badute interesa, hautaketa **izena emandako hurrenkera zorrotzaren** arabera egingo da.

Azokaren ORDUTEGIA:

Astelehenetik asteazkenera 10:00etatik 19:00ak arte

Osteguna 10:00etatik 17:00ak arte

ERAKUSKETA EREMUA: 31.500 m²

2018ko ERAKUSKETARIAK: 1.603 erakusketariak

2018 BISITARIAK: 90.158 profesionalak 63 herrialdekoak.



Parte hartzeko baldintzak

Parte hartzeko konpromisoa EAEn egindako produktuak Ebaluazio-inkesta

Ekitaldian parte hartu ahal izango dute egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten **enpresa produktoreek**, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Elikadura Industrien Erregistroan izena emanda badaude.

Azokaren aurretik

- Enpresaren ordezkari baten aldetik joateko konpromisoa eta kuota ordaintzea; beraz, **EAEko standean sartuko dela jakinarazten denetik ezingo da ekitaldian baja eman**. Halabeharrezko kasuetan baino ez, Eusko Jaurlaritzak eskubidea erreserbatzen du enpresak aurkeztutako arrazoiak baloratzeko eta, behar bada, ordaindutako zenbatekoaren ehuneko bat itzultzeko.
- Azoka irekitzeko bezperan, esaten zaien orduan, enpresak derrigor egon behar dira merkantzia jasotzeko, eta beraien erakustokien dekorazioa amaitzeko, jardunaldia hasi baino lehenago.

Azokan zehar

- Azokan **Euskal Autonomia Erkidegoan fabrikatutako produktuak** baino ezingo dira erakutsi. Ezin izango da, inola ere, beste Autonomia Erkidego batzuetako produktuak aipatu, ezta aurkeztu ere.

- Standetan azokako egun guztietan eta zabalik dagoen ordu guztietan eman behar da arreta.

Azokaren ordutegian zehar enpresaren batek bere stand-a utzik utziko balu, arreta gabe eta salbuespenezko zergati gabe, hurrengo edizioan lehentasuneko eskubideak galduko lituzke (izen-emate orduan, etab...). Kasu honetan enpresa horren eskaera kontutan hartuko litzateke soilik baldin eta, izen-emate eta ordainketarako jarritako egunen barruan egindako inskripzioak egin eta gero, leku librea egongo balitz.

Halaber, enpresa batek edota hainbatek stand bat utzik uzteak Eusko Jaurlaritzari, antolatzaile den bezala, azokako antolatzaileek santzio ekonomikorik sortuko balio, berehala arazoa sortu duen enpresari/enpresei bideratuko zaio berbera.

- Azoka amaitzerakoan produktu guztiak behar bezala jaso behar dira eta standeko elementuak entregatu, jaso ziren egoera berberetan.

Azokaren ondoren

- **Ebaluazio galdetegia** antolakuntzaren jarraibideekin bete eta entregatzea.



Azokan parte hartzeko eredua eta kostua

PARTE HARTZEKO EREDUA

2019ko edizioan Eusko Jaurlaritzak stand bat izango du, eta bertan kalitateko nekazaritzako elikagaietan interesa duten eta parte hartu nahi duten enpresak sartuko dira.


Azken edizioetako esperientzia positiboaren ondoren, zeinetan stand partekatuaren kontzeptua eskaini zen, 2019ko edizioan parte hartzeko modu hauek eskaintzen dira:

- **Stand PARTEKATUA** eredua, enpresen artean berezi gabeko gune komuna.
- * Stand eredu horretan parte hartu nahi duten enpresek kontuan hartu behar dute, lekuagatik, ez dutela tarterik izango hotz bitrinak jartzeko, ezta apaintzeko elementu osagarriak ere.
- **Stand INDIBIDUALA** eredua.
- **Stand BIKOITZA** eredua.

PARTE HARTZEKO KOSTUA

GOURMETS 2019an, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saitetik, Euskal Autonomia Erkidegoko lehen sektorearen produktua eraldatu eta merkaturatzen duten enpresen parte hartzea bultzatuko da.

Ondoren ekintzetan parte hartzeak dakarren kostua finantzatzeko diru laguntzetarako egingo den sailkapena adieraziko dugu.



33
EDICIÓN
8,9,10 y 11
SALÓN
GOURMETS

Azokan parte hartzeko eredua eta kostua

ENPRESEN SAILKAPENA

1. MOTAKO ENPRESA

EBatez ere Euskadiko lehengaiz hornitzen diren enpresak. Enpresak produktuaren jatorria egiaztatu beharko du.

Eusko Jaurlaritzak horrelako enpresentzat emango duen diru laguntza **%70ra artekoa** izango da:

Stand partekatua:

1.030 € + %21 BEZ = 1.246 €

Stand indibiduala:

2.060 € + %21 BEZ = 2.492 €

Stand bikoitza:

4.120 € + %21 BEZ = 4.985 €

2. MOTAKO ENPRESA

Euskadin behar duten lehen sektoreko produkzioren egon ez, eta Euskaditik kanpoko lehengaiak erabiltzen dituzten enpresak.

Eusko Jaurlaritzak horrelako enpresentzat emango duen diru laguntza **%50ra artekoa** izango da:

Stand partekatua:

1.830,6 € + %21 BEZ = 2.215 €

Stand indibiduala:

3.661,2 € + %21 BEZ = 4.430 €

Stand bikoitza:

7.322,4 € + %21 BEZ = 8.860 €

3. MOTAKO ENPRESA

Batez ere Euskadiko lehengaiz hornitzen EZ diren enpresak, Euskadin behar duten lehen sektoreko produkzioa egonda ere.

Eusko Jaurlaritzak horrelako enpresentzat emango duen diru laguntza **%30ra artekoa** izango da, eta kostuak honela geratuko dira:

Stand partekatua:

2.565 € + %21 BEZ = 3.104 €

Stand indibiduala:


5.125 € + %21 BEZ = 6.201 €

Stand bikoitza:

10.250 € + %21 BEZ = 12.402,5 €

Parte hartzeko **kuota bi zatitan** ordainduko da, baina faktura **bakarra** izango da.

- Zenbatekoaren %50 + %21 BEZ, izena emateko orduan eta espazioa erreserbatzeko kontzeptuan.
- Gainerako zenbatekoa, berriz, jardunaldia egin baino 60 egun lehenago ordaindu beharko da.



33
EDICIÓN
8,9,10 y 11
SALÓN
GOURMETS

Eusko Jaurlaritzarekin parte hartzea

Izen-emate formularioa

Ordainketa agiria eta Zinpeko Deklarazioa

Izen-emate epea: 2018ko urriaren 8a

Leku kopurua mugatua denez, gomendatzen dugu lehenbailehen izena emateko formularioa betetzea eta ordainagiria zinpeko deklarazioarekin batera bidaltzea Jon Zabaletari: **jzabaleta@camaragipuzkoa.com**.

Enpresa parte hartzaileen hautaketa izena emateko dokumentuak jasotzeko hurrenkeraren arabera egingo da.

IZEN-EMATE FORMULARIOA BETE



Formularioan eskatzen den informaziotik, datuak zehazki transkribatuko dira azokaren katalogo ofizialerako eta prestatzen diren gainerako elementu promozionaletarako.

ENVIAR JUSTIFICANTE DE PAGO

Kontu zenbakia: **ES49 3035-0179-61-1791069900** Laboral Kutxa HAZI Fundazioaren izenean

Kontzeptua: "Enpresaren izena + GOURMETS 2019"


HAZI Fundazioko Finantza Departamentuak dagokion zenbatekoaren faktura igorriko du, izena emateko epea amaitu eta parte hartzea baieztatu eta gero.

Izena emateko epea: 2018ko urriaren 8a

ZINPEKO DEKLARAZIOA BIDALI



Izena ematen duten enpresek lehengaien jatorriari buruzko **Zinpeko Deklarazioa sinatuta eta zigilua jarrita aurkeztea** beharrezkoa da.



33
EDICIÓN
8,9,10 y 11
SALÓN
GOURMETS

Eusko Jaurlaritzarekin parte hartzea

Izena ematearen formalizazioa

Parte hartzeari uko egin

GARRANTZITSUA: Izen ematea formalki egindakotzat jotzeko, **IZENA EMATEKO FORMULARIOA** behar bezala beteta eta **ORDAINAGIRIA** eta **ZINPEKO DEKLARAZIOA** bidali beharko dira, izen ematearen datan, **ondorio guztietarako, ordainketa egin den eguna agertuko delarik.**

Eskatutako dokumentuak bidaltzeak **EZ DU ESAN NAHI** enpresak Eusko Jaurlaritzaren standean parte hartuko duela, izan ere, gutxieneko enpresa kopuru bat egon behar da hori egiteko. Eusko Jaurlaritzak izena ematearen onarpena jakinaraziko du.

ENPRESAK FAKTURA JASO ETA GERO, HAU DA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO PABILOIAN SARTU DELAKO JAKINARAZPENA JASO ETA GERO, PARTE HARTZEARI UKO EGITEN BADIO, ORDAINDUTAKOAREN %100 GALDUKO DU.

Halabeharrezko kasuetan baino ez, antolakuntzak eskubidea erreserbatzen du enpresak aurkeztutako arrazoiak baloratzeko eta, behar bada, ordaindutako zenbatekoaren ehuneko bat itzultzeko.

Enpresek ordaindutako zenbatekoak itzultzeko kasu hauek baino ez dira kontuan hartzen:

- Enpresa erakusleek eskatutako gunea Azokaren Antolakuntzak Eusko Jaurlaritzari esleitutako gunea baino handiagoa bada, hautatu ez diren enpresek eskubidea izango dute aurrez izena emateko kuota itzultzeko.
- Eusko Jaurlaritzak halabeharrez edo nahiko partaiderik ez dagoelako parte hartzea bertan behera uzten badu, enpresek eskubidea izango dute ordaindutakoaren %100 jasotzeko.



EUSKADI
BASQUE COUNTRY



Azokan eskainitako zerbitzuak

- 1) Espazioa kontratazea
- 2) Standaren dekorazioa
- 3) Merkantziaren garraioa

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak, HAZI Fundazioaren bitartez, hurrengo zerbitzuak eskainiko ditu:

ESPAZIOAREN KONTRATATZEA

Espazio promozional batekin parte hartuko da, eta hori enpresa ko-erakusle bakoitzerako 9 m²ko stand indibidual pertsonalizatuetan eta stand partekatuak izango dituen gune batean banatuko da.

MERKANTZIAREN GARRAIOA

Eusko Jaurlaritzak merkantziaren bidalketa bateratu bat antolatuko du esleitutako garraiolari ofizialak adierazten duen lekutik merkantzia standean bertan entregatu arte.

Garraiolariak egingo du merkantzia bidaltzearen kostuaren faktura eta enpresa erakusleak ordainduko du oso-osorik. Bere garaian, esleipena duen enpresa garraiolariaren datuak emango dira.

Esaten zaien orduan, enpresak derrigor egon behar dira merkantzia jasotzeko, eta beraien erakustokien dekorazioa amaitzeko, ekitaldia hasi baino lehenago.

Adierazitako orduan merkantzia jasotzera agertzen ez diren enpresek zigorra jasoko dute.


STANDAREN DEKORAZIOA

Standa hornitzeko dekorazioa eta oinarritzko altzariak uniformeak izango dira EAEko standeko erakusle guztientzat, eta, edonola ere, hau egongo da:

Stand Indibiduala (horma banatzaileekin): *mahaia eta 4 aulki, erakusmahaia, enpresa erakuslearen errotulua, konexio elektrikoa eta biltegia hozkailuarekin eta harraskarekin.*

Stand Partekatuarentzako (hormarik gabe): *erakusmahaia eta taburetea, enpresaren errotulua, erabilera komunitarioko bilera mahaia, erabilera komunitarioko hozkailudun biltegia, erabilera komunitarioko harraska eta konexio elektrikoa.*

* **Oharra:** *Standetako oinarritzko altzarietan, elementu elektrikoetan edo elektrizitateko beharretan egin beharreko aldaketa oro, horien hazkundea edo aldaketa eragiten badu, ko-erakusle bakoitzak zuzenean kontratatuko du, eta bere gain hartuko du gehitutako kostua dekoratzailearekin, zeinak zuzenean fakturatuko dion zerbitzua.*



33
EDICIÓN
8, 9, 10 y 11
SALÓN
GOURMETS

Azokan eskainitako zerbitzuak

- 4) Hortz kamerak eta beste etxe-tresna elektriko batzuk
- 5) Standa mantentzeko lanak
- 6) Azokaren katalogo ofizialean sartzea

HORTZ KAMERAK ETA BESTE ETXE-TRESNA ELEKTRIKO BATZUK

Hotz-kameren edo erakusketariak eskatutako beste-lako etxetresna elektriko osagarrien alokatzea erakusketariaren kontura izango da.

Nolanahi ere, Saila, enpresen zerbitzura dago, hornitzaileak zuzenean enpresa erakusketariari fakturatuko dion zerbitzu horren kontratazioa koordinatzeko.

STANDA MANTENTZEKO LANAK (gabiketa, elektrizitatea, ura, etab.)

Eusko Jaurlaritzak bere gain hartzen ditu garbiketako zerbitzu orokorrak, elektrizitatea, ura, etab., eta, oro har, standa egoki mantentzeko lanak.

Stand bakoitzerako potentzia elektrikoko tope batzuk eta gehienezko kontsumobatzuk egongo dira, eta horren berri jakinaraziko zaie ko-erakusleei parte hartzea prestatzeko tramiteak hasten direnean. Enpresa erakusleren batek tope horiek gainditu nahi baditu, kostua bere gain hartu beharko du.

AZOKAREN KATALOGO OFIZIALEAN SARTZEA

Beharrezko izapideak egingo ditu Eusko Jaurlaritzak enpresa erakusketari bakoitza azokaren web orrialde eta katalogo ofizialean inskribatuta izateko (izen-emate formulariotik jasotako datuak agertuko dira).

